



ASTEARTEA

2023/11/28
11. urtea, 1.880. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

Aiara Agirrezabala Europakoan

Berastegierra 17 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin, bigarren fasean lehiatuko da // 7



Tolosaldeko Mugimendu Feministako kideek atzo egin zuten ostegunean izango den grebarako deia. AITOR ARROYO

Zaintza eskubidearen alde herritar guztiak deitu dituzte grebara

Mugimendu Feministak greba feminista orokorra deitu du etzirako; Tolosaldean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta mobilizazio nagusia arratsaldean Tolosan egingo den manifestazioa izango da // 5

Abian da Tolosako Alde Zaharra biziberritzeko plana

Udalak bost fasetan banatu du gune historikoa «aztertu eta hobetzeko» Plan Integrala; modu parte hartzailean egingo duela azaldu du // 2

Gorka Etxeberria gailendu da Albitzuri Handi harriarekin

Sei harri jasotzaile aritu ziren lehian Amezketan, eta Etxeberriak irabazi zuen harri baldarrari bederatzi jasoaldi emanez // 6



Tolosaldea LHIik egungo gizarterako baliagarri den prestakuntza digitala eskaintzen du. Bertan hainbat gai esanguratsu landuko dira:

BakQ
Online segurtasuna
Posta elektronikoa
Google Drive

Prestakuntza DOAN izango da eta lehentasuna izango dute:

- > 55 urtetik gorako pertsonak
- > Kualifikazio maila baxua duten pertsonak
- > Garrantzia berezia eskainiko zaio genero arrakalari

NON

Tolosaldea Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuan,
Santa Luzia 17, 20400
Tolosa Gipuzkoa.

NOIZ

Azaroan
(astelehenetik ostegunera)

ORDUTEGIA

Arratsaldez

IZEN-EMATEA

Telefonoz:
633 162 876
Emaila:
peru.arrondo@tolosaldealh.eus

P
R
E
S
T
A
K
U
N
T
Z
A



zurekincoach.com
PERSONAL & EMPRESARIAL

ZURE ALDAKETAN
BIDELAGUN

Donosti etorbidea 22,
16 pabilioia
TOLOSA

686 73 88 15

info@zurekincoach.com

www.zurekincoach.com

Alde Zaharra biziberritzeko Plan Integrala martxan da

Tolosako Udalak gune historikoaren egoera aztertu eta nola hobetu jasoko duen bide orria zehaztu du; modu parte hartzailean egingo dutela adierazi dute


Josu Artutxa Tolosa

Tolosako Udalak Alde Zaharra biziberritzeko Plan Integrala garatzeko prozesua abiatu du. Ikuspegi ezberdinetatik gune historikoaren egoera aztertu eta nola hobetu jasoko duen bide orria izango da, modu parte hartzailean garatuko dena. Andu Martinez de Rituerto alkateak eta Ander Figerido Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak Saileko zinegotzi arduradunak nabarmendu dute udal gobernuarentzat «garrantzia berezia duen proiektu estrategikoa» dela Alde Zaharra biziberritzea: «Bere bizigarritasunean moteltze zantzuak eman dira, eta etorkizunera begirako plan bat behar du, bizitzeko, negozio bat izateko edota gozatzeko gune atsegina izan dadin», adierazi dute.

Plan hau egitearen arrazoiak azaltzeko, alkateak gogora ekarri du «etxebizitza bakoitzeko errenta baxuena, langabezia eta etorkin tasa handiena, bizilagunen eskura lurrazaleko aparkaleku kopuru txikiarena eta etxebizitza huts gehien duen gunea» dela herrian. Aldi berean, orde, komertzio txikiaren garrantzia, kultur eta aisialdi eskaintza eta ondare historikoa ere azpimarratu ditu: «Herriaren bihotza da Alde Zaharra. Herriaren izaera eta bizian garrantzi handia du. Baina bizilagunen artean, eta herrian oro har, bada nolabaiteko kezka bat bere egoeraren inguruan. Eta arreta berezia behar du».

Parte hartzea izango da plana sortzeko «ezinbesteko» tresna. Izan ere, bizilagun, eragile eta merkatariekin batera garatu nahi dute prozesua: elkarriketa eta saio irekiak egingo dituzte, iritziak trukatu, ideiak partekatu eta eztabaidatu, eta lehentasunak finkatzeko. «Bizilagunek ezinegonaz azaldu izan digute elkarrekin egin ditugun bileretan, eta plan hau, kezka eta eskakizun horiei erantzuteko modua izango da», argitu du alkateak.

Udalak alor askotan jarri nahi du azpimarra prozesu horrekin. Bere lehen asmoen arabera, aztergaiak lau multzotan banatu



Ander Figerido eta Andu Martinez de Rituerto, plaza aurkezten. J. ARTUTXA

dituzte, nahiz eta ondorengo parte hartze prozesuekin aberastu eta guztiz definituko diren jardura-esparru horiek.

Etxebizitza izango da multzo nagusienetako bat: hala nola, eraikinen egoera eta ordenantzak, irisgarritasuna edota etxe hutsen merkaturatzea aztertu nahi dituzte.

Beste alorretako bat ondarea izango da, eraikin historikoen egoera, ondarearen zabalkundea, turismoaren inpaktua dota zerbitzuen eskaintza aztertzeke.

Hirugarren multzoan, elkarbizitza eta konektibitatea landuko dituzte, besteak beste, auto eta bizikletentzako aparkalekuen egoera, mugikortasuna, segurtasuna, mantenua, aisialdiaren eta atsedeen uneen arteko oreka, zarrak, eremu berde edo jolastokiak aztertzeke.

Eta, azkenik, erabileraren aniztasunean jarriko da fokua: merkataritza eta ostalaritza, lokal erabilgarriak, ekipamendu publikoak, arte urbanoa, ekitaldietako guneen errotazioa.

Alde Zaharrak esparru askotako beharrak dituela nabarmendu du Figeridok, eta bata bestearekin eragin zuzena izan leza keela. «Modu integralean

aztertuta, uste dugu horietako zenbaiten egoera iraultzeko aukera izango dugula. Azken batean, guztion arteko adostasunak bilatuz, auzoa biziberritzeaz gain, bizitzeko eremu atsegina batean bihurtu dezakegu».

BOST FASE

Alde Zaharreko Plan Integralak bost fase izango ditu, eta lehen biak gauzatzeko kontratua egin du dagoeneko udalak, hiri-planifikazio prozesuetan aditua den Paisaje Transversal estudioarekin. Hain zuzen, Olot (Herrialde Katalanak), Gijon (Asturias) edo Gasteizen, besteak beste, antzeko proiektuak egin ditu enpresa horrek, hirigintza eta biziberri-

Bost fasetan banatu dute proiektua, eta azken fasea iraunkorra izango da

tze proiektuak garatu ez ezik, hori ahalbidetzeko parte hartze prozesuak ere antolatuz.

Lehen fasea udalaren eta Paisaje Transversal enpresaren artean gauzatuko da, datozen bizpahiru hilabeteetan. Dokumentazioa bildu (planoak, ordenantzak, datu eta estatistikak...), aztertu eta jardura-esparruen lehen planteamendua zehaztuko dute.

Bigarren fasean, lehen fasean gauzatutako proposamena bizilagun, eragile eta gainerako he-

rritarrekin kontrastatuko dute, ekarpenak jaso eta estrategiaren oinarriak, landu beharreko puntuak, lehentasunak eta bide-orria elkarrekin finkatzeko. Horretarako, elkarriketak eta saio irekiak egingo dituzte.

Behin bi fase horiek amaituta, landutako eta adostutako puntuetatik abiatuta eratuko dute estrategia integrala. Hala, hirugarren fasean modu parte hartzailean estrategia berrikusi, indartu eta proiektuen akzio plana garatuko dute. «Horretarako, egin beharreko lanen aurrekontuen azterketa egin eta lehentasunak adostuko dira».

Laugarren fasean, berriz, elkarrekin adostutako lehentasuna duten proiektuen garapen zehatza egingo dute. «Ezustekorik ezean, eta aurreikuspenak bete-ko balira, 2025 amaierarako lan horiek gauzatzea da helburua».

Bosgarren fasea «fase iraunkorra» izatea da planteamendua, urtero, estrategia gauzatzen jarraitzeko. «Lehentasunak bete ostean, prozesuan ateratako ideia eta proiektu egingarriekin aurrera jarraitzeko bidea ematea da helburua».

INTERBENTZIO GEHIAGO

«Lan potoloa dugu aurretik, baina gogoz heltzen diogu. Urteetako nahia izan da, bai herritarren aldetik, baita gure aldetik ere. Behar bat du, eta guztion artean adostasunak bilatuz, auzoa biziberritzeaz gain, bizitzeko eremu atsegina batean bihurtzea da helburua», adierazi du Figeridok. Hala eta guztiz ere, zinegotziak azaldu duenez, plana martxan jartzeak, ez du esan nahi bitarte horretan ez denik Alde Zaharrean bestelako interbentziorik egingo. «Behar batzuk dagoeneko identifikatuta daude, eta lan horiek aktibatzen joango gara».

Alde Zaharreko sarreretako bat Gorriti plaza da, eta hori eraberritzea udal gobernuak epe motzerako aurreikusita duen asmoetako bat da. «Proiektua jada garatuta dago, baina zenbait arazo sortu dira, eta horiei irtenbidea eman bezain laster gauzatu-ko dugu. Azkar egin nahiko genuke», esan du alkateak.

Anoetako Udalak gobernu plana aurkeztuko du

Herritarren bizi kalitatea hobetzea izango du helburu planak; bihar egingo dute aurkezpena, udaletxean, 19:00etan

Jon Miranda Anoeta

Anoetako udal gobernuak lau urteetarako gobernu plana prestatzen ari da, eta bihar aurkeztuko du udaletxean, 19:00etan, herritarren aurrean. Egoitz Luisa alkateak adierazi duenez, herritarren bizi-kalitatea hobetzea da planaren helburua; «hori da udal gobernuaren lehentasun nagusia», esan du.

Alkatearen esanetan, udal gobernuak badu herritarren beharren ezagutza zehatza eta badaki nola egin behar duen lau urteotan: «Guretzat funtsezkoa da herritarrekin batera elkarlanean aritzea, horrela ulertzen baitugu egin behar dela herrigintza, horrela asmatuko baitugu ongizatean sakontzen». Luisaren iritziz, udal gobernuak baditu ideiak eta baditu proiektu garrantzitsuak esku artean eta horiek guztiak islatuko dituzte gobernu planean. «Jasoko diren neurriek herriguneari nahiz landa eremuari eragingo diete, haur, gazte zein pertsona helduei, bertakoei eta bertaratutakoei. Ekonomia arlokoak izango dira neurri batzuk, hirigintzarekin lotutakoak beste batzuk, garbitasuna kontuan hartuko da, aisialdia, nagusien beharrak, euskara, genero politikak, feminismoa, ingurumena...».

Gobernu plana orain argitara emango den arren, alkateak nabarmendu du gobernu ardura hartu zutenetik lanean aritu direla, eta besteak beste, farmazia elkargoarekin hitzarmena sinatu dutela etxer-etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileen eta gizarte zerbitzuek artatutako pertsonen artean botiken erabilera optimizatzeke programa garatzeko; kiroldegian hainbat doikuntza egin dituzte eta Lasarbeke errekan babes hesia jarri dute; Irakin proiektuarekin ere hitzarmena sinatu dute herritarrei sukaldaritza ikastaroak eskaintzeko eta egoera zaurgarrienean dagoenari laguntzeko, eta larrialdietarako udal etxebizitzaren erabilera ere arautu dute.



HASI DA TITIRIJAI JAIALDIA

Larunbatean hasi zen eta abenduaren 3ra bitarte luzatuko da 41. Titirijai Txotxongiloen Naziorteko jaialdia. Herenegun, esaterako, Guixo de 8 konpainiaren *Gargot Picado* joko bilduman jolasteko aukera izan zen Zerkau-sian. Gaur, helduei zuzendutako *Abarca do inferno* izango da Topic-en. L.C.



PASABIDEA JARRITA

Belate eta Larramendi auzoen arteko pasabidea jarri dute asteburuan. Ho-rretarako, Belate pasealekua guztiz moztu zutene herenegun Hernialdeko bidegurutzeraino, oinezko nahiz ibilgailuentzat, hiru garabi jarri baitzituz-ten. Ikusmin handia sortu zuen herritarren artean. L. CARRASCO



IKER GALARTZAREKIN SOLASEAN

Irrika aisialdi taldeak eta Galtzaundi Euskara Taldeak elkarlanean antola-tuta, Sormenetik Gurera ekimenaren saio berria egin dute asteburuan, Villa-bonako Berdura plazan. Kasu honetan, Iker Galartza artista tolosarra elka-rrizketatu dute aisialdi taldeko begiraleek eta haurrek. J. ARTUTXA



INGURUAK EZAGUTZEKO

Larraulgo kultur astearen barruan, bi ordu inguruko mendi buelta zirkula-rra egin dute asteburuan herritarrek. Larraulgo txokoak ezagutzeaz gain, Lizartza eta Alkiza inguruan zehar ibili dira, larrauldarren artean ezaguna den *Kaskadara* iritsi arte. L. CARRASCO



zozketak



Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Leyma Coruña
partida ikusteko

Abenduak 10, igandea
17:00etan
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
San Pablo Burgos
partida ikusteko

Abenduak 22, ostirala
20:30ean
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Grupo Alega Cantabria
partida ikusteko

Abenduak 29, ostirala
20:30ean
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat lau sarrera ditugu



Pirritx, Porrotx,
Marimototsen
EZ GARA JAITSIKO
ikuskizun berria

Abenduak 16
larunbata, 18:30ean
Ordiziako
Majori kiroldegian

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus

Egun soil batekoa baino, eguneroko zapalkuntza delako

Larunbata azaroaren 25a izaki, indarkeria matxistaren kontrako ekitaldiak zabandu dira; arbuioa egunean baino egunero ikusi behar dela adierazi dute

Erredakzioa

Indarkeria matxistaren orbanaz nazkaturik daude herritarrak, eta horrela erakutsi dute asteburuan herri gehienetan.

Esaterako, ekitaldirik jendetsuenetakoa Tolosakoa izan da. Asanblada Feministak deituta, ehunka herritar bildu zituen manifestazioa egin zuten larunbat iluntzean. Aurten Euskal Herrian gertatu diren erailketak gogorarazi –Euskal Herrian lau emakume eta haur bat erail dituzte–, eta erakundeei dei egin zieten, emakumeen kontrako indarkeria agenda politikoaren lehen lerroan jar dezaten.

Orendainen ez dela indarkeria matxistarik onartzen adierazteko herri sarreran kartela jarri zuten, eta elkarretaratzea egitearekin batera erakutsi zuten.

Akain eta Lurgatz talde feministek deituta, mobilizazioa egin zuten Zizurkilgo Joxe Arregi plazan; ekitaldiaren amaieran, Irradaka dantza egin zuten bertaratu ziren herritarrek.

Ikaztegieta gaztetxoek izan zuten protagonismoa, Gure Plaz Txo! proiektuaren bitartez. Honela, herritarrek indarkeria matxistaren inguruan hausnartzeko ariketa osatu dute gazteek.

Berastegin, azaroaren 25a bezalako egun sinbolikoa baliatu nahi izan zuten herriko emakume taldea aurkezteko. Plazan izan zen jendaurreko aurkezpena eta «talde irekia» izango dela adierazi zuten; «nahi duen emakume orok izango du bere tokia».



Tolosako Alde Zaharrean zabandu zen manifestazioa, larunbatean. JOSU ARTUTXA



Zizurkilen Irradaka dantzatu zuten, eta Asteasun, aulki hutsekin irudikatu zuten hil dituzten emakumeak. J.A. / J.MIRANDA



Albizturren eskola komunitatea indarkeria matxistaren aurka azaldu da. ATARIA



Orendainen ez dela indarkeria matxistarik onartzen dioen kartela jarri dute. I.G.L.

GUTUNA

Azaroaren 25a: eta gizonen zer?

J oan den larunbatean, azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta martxoaren 8an bezala, gizonok deseroso samar sentiarazten gaituen egun horietako bat.

Agian ez da erraza izango airtortzea, baina hori da nire pertzepzioa, eta uste dut ez naizela bakarra. Ez naiz hainbeste ari feminismoa matxismoaren kontrakoa bezala, nahita edo nahi gabe, nahasten dutenei buruz. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko balioaren defentsarekin konprometitu sentitzen garenoi buruz ari naiz; eta emakumeen aurkako indarkeria, desberdintasun horren ebidentziarik nabarmenena den aldetik, desagerrarazi egin behar dugula pentsatzen dugunoi buruz ari naiz. Zerbait egin nahi dugunoi buruz eta zerbait egiten dugula pentsatzen dugunoi buruz ari naiz.

Hala eta guztiz ere, egunak deseroso sentiarazten gaitu, ez baitakigu argi zein den gure zeregina. Guztioi, nigandik hasita, ez datorkigu batere gaizki deserosotasun hori, beharrezko deserosotasuna baita. Beste gizon batzuen eskutan emakumeek jasaten duten indarkeriak interpelatzeko gaitu eta deserosotasuna sortzen. Horregatik, horrelako egunetan paper bat dugula uste dut, baina ez paper publiko eta protagonista bat.

Horregatik, larunbatekoa bezalako egunak, isilik egoteko eta hitza hartzeko egunak dira, era berean. Isilik egon, entzun, ulertu eta onartu ahal izateko, aldarrikapen egun horiek emakumei eta haien sufrimenduei dagozkiela. Isilik egon, gizon garen aldetik, desberdintasunaren aurkako borrokan gure ingurunean dugun erantzukizunari buruz hausnartzeko; hazkuntza eta zaintza bezalako gaien aurrean, edota eguneroko pentsamenduen eta jokabideen aurrean dugun jarrera aztertzeke. Eta hala badagokio, egun bat gehiago, eta ez bakararra, hitza hartzeko eta beharrezkoa bada, haien ideiak edo jokabideak matxistak direnean, beste gizon horien jokabideak salatzeke. Isilik, beraz, emakumeen bidelagun izateko, baina ez jarrera matxisten konplize izateko.

Iker Uson

Tolosako EAJko zinegotzia



Agerraldia eskaini zuten atzo, Tolosan, osteguneko greba feministarokorrerako deialdia egiteko. A. ARROYO

Zaintza eskubide kolektiboaren alde

«Bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren lan guztiak ikustarazi eta lehen lerrora ekartzeko» asmoz antolatu dute osteguneko Greba Feminista Orokorra

Erredakzioa Tolosa

Euskal Herriko Mugimendu Feministak lehenengo greba feminista orokorra deitu du ostegunerako, azaroak 30, zaintza eskubide kolektiboaren alde egiteko helburuz.

Tolosaldeko ordezkariak esan dute Euskal Herrian, gaur egun, zaintzarako zerbitzuak gero eta pribatizatuago daudela. «Nahiz eta administrazio publikoa izan zaintza zerbitzuak kudeatzeko ardura duena, kasu gehienetan kudeaketa enpresa pribatuen esku utzi dute eta horrek prekarizazioa ekarri du».

Gaineratu dute inork egin nahi ez dituen lanak emakumeen esku geratzen direla, emakume migratzaileen esku kasu askotan, «feminizatuak eta prekarizatuak, eta ez dute ez aitortza sozialik, ez politikorik, ezta ekonomikorik ere». Nabarmendu dute horrek eragin zuzena dau-

kala zainduaren arretan, eta horregatik ezinbestekoa dela langileek lan baldintza duinak izatea zainduaren arreta ere kalitatezkoa eta duina izan dadin.

MOBILIZATZEKO ARRAZOIAK

Mugimendu feministaren hitzetan ez dira gutxi hilaren 30ean kalera ateratzeko arrazoiak, «erresidentzietako pribatizazioak, zerbitzu publikoetako murrizketak, Atzerritartasun Lege arrazista, barne erregimena, langileen lan baldintza prekarioak», besteak beste. Eta gizarteak aurrean duen erronka ez dela makala uste dute: «zaintza sistema publiko eta komunitarioa sortzea, herritar guztion zaintza eskubide kolektiboaren alde».

GIZON ZEIN EMAKUME

Denon bizitzak erdigunean jarri nahi dituzte eta bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren lan guztiak ikustarazi eta lehen le-

rrora ekarri. «Zaintza eskubidearen aldeko borroka jendarte osoari begirakoa da, eta beraz, emakumeak zein gizonak gaude greba egitera deituta. Ezinbestekoa da zaintza lanak partekatzea, eta gizonok ere zaintza lanen gaineko erantzukizuna hartzea».

INSTITUZIOAK

Zaintza eskubidea unibertsalizatu behar dela uste du mugimendu feministak eta horretarako instituzio publikoek haien ardur hartu eta politika publikoetan aldaketa eragin behar dutela uste dute. «Horrez gain, zaintza eskubidea bermatu ahal izateko, beharrezkoa da oinarrizkoak diren beste eskubide batzuk ber-

«Emakumeak zein gizonak gaude grebara deituta. Ezinbestekoa da zaintza lanak partekatzea»

matuak izatea, etxebizitza eskubidea edota gutxieneko pensioa, kasu».

Azkenik, zaintza lanak aitortu eta duindu behar direla esan dute, eta enplegua den egoeretan, lan baldintzak hobetu.

Greba Feminista Orokorrerako gutxi geratzen dela gogoratu dute eta aurreko egunetan kaleak astintzeko deia luzatu diete herritar guztiei. «Azaroaren 30a mugarria baino ez da, eta hurrengo egunean ere borrokan eta lanean jarraituko dugu zaintza lanak demokratizatzerari bidean urratsak ematen jarraitzeko».

Hori guztia kontuan hartuta eskualdeko herritar guztiei azaroaren 30erako eskualdean antolatu dituzten mobilizazioetan parte hartzeko deia egin die mugimendu feministak, eta gogoratu dute eskualdeko mobilizazio nagusia 18:00etan abiatuko dela Tolosako Trianguloatik.

GREBAREKIN BAT EGIN DUTEN ERAGILEAK

Altzoko Mariren Alabak, Irura Moretuz, Bidania-Goiazko matraka taldea, Matraka Talde Feminista, Lurgatz Talde Feminista, Tolosako Asanblada Feminista, Tolosaldeko Asanblada Feminista, Zartada Neska Gazte Taldea, Deabruak Kalera Talde Feminista, ELA sindikatua, LAB sindikatua, Sortu, Pentsiodunen Mugimendua, Ernai, Oneka, TOPA, Iurreamendiko Egoiliar Senitartekoen Taldea, Akain Talde Feminista eta TOLOSALDEKO ATARIA.



EKITALDIAK

Amasa-Villabona

10:00. Elkartasun piketea Berdura plazatik abiatuta.
12:00. Mobilizazioa Malkar plazatik.
14:00. Bazkari autogestionatua Berdura plazan (etxetik eraman behar da bazkaria).

Anoeta

10:00. Kafe tertulia plazan.
12:00. Kalejira herrian zehar.

Ibarra

10:00. Tolosako kotxe karabana deialdia.
12:00. Mobilizazioa plazan.
17:30. Jende-katea Tolosako Triangulora.

Ikaztegieta

10:00. Gosari tertulia Ostatuan..

Irura

12:00. Elkarretaratzea plazan.

Tolosa

10:00. Kotxe karabana Usabalgo aparkalekutik.
10:30. Agerraldia Iurreamendi egoitzan.
11:30. Agerraldia Uzturre egoitzan, eta amaiera.
12:00. Elkarretaratzea Trianguloan.
18:00. Eskualde mailako manifestazioa, Trianguloa plazatik.

Gorka Etxeberria, Albitzuri Handi Harria Txapelketan irabazle

Bederatzi jasoaldi eman dizkio harri baldarrari; Aimar Galarragak ere jasoaldi horiek egin ditu, baina Etxeberriak gutxiago pisatzen duenez, berarentzat izan da txapela


Imanol Garcia Landa
Amezketak

Emozio handiko harri jasotze txapelketa izan zen larunbat arratsaldean jokaturako Albitzuri Handi Harriarena. Azken urteotan lau urtez behin jokatzen da, eta aurtengoan 250 ikusle inguru izan ziren Amezketako Larrunari frontoian. Sei harri jasotzaile ausartu ziren harri baldarrarekin, eta azkenean Gorka Etxeberria izan zen irabazlea. Bederatzi aldiz jaso zuen Etxeberriak; jasoaldi horiek egin zituen ere Aimar Galarragak, baina Etxeberriak gutxiago pisatzen duenez, berarentzat izan zen garaipena. Hirugarren eta laugarren postuan Beñat Telleria eta Gari Garmendia sailkatu ziren hurrenez hurren; biek zazpi jasoaldi egin zituzten, baina Telleriak gutxiago pisatzen duenez, berarentzat izan zen hirugarren postua. Bosgarrengoan, berriz, Xabier Aranburu *Guzta* sailkatu zen, lau jasosaldirekin. Azkeneko postuan Imanol Royo *Lartain* geratu da, bi jasoaldi eginez. Ikusleen txalo zaparrada jaso zuten harri jasotzaile guztiek, egindako esfortzua eskertuz.

«Sinistu ezinik» zegoen Gorka Etxeberria, txapela jantzi berri-tan: «Bakarka lehenengo txapela da harri jasotzen. Ez nuen espero gaur janzerik; dena ondo atera da eta gero besteek ez dute asmatu, eta oso gustura nago». Lehenengoa izan zen parte hartzen Etxeberria, beraz, ez zuen besteen erreferentziarik. «Askotan esaten da harri baldarretan kome-ni dela lehenengoa izatea eta



Txapelketan parte hartu zuten sei harri jasotzaileak, sari banaketan. I.G.L.



Gorka Etxeberria ahalegin betean Albitzuri Handi Harria altxatzen. I.G.L.

gero ahaztea, baina jakinda atzetik bost indartsu zetoze la nire marka egiteko gai zirenak, buka- era arte itxaron behar izan dut. Nik bederatzi egin ditudanez, eta arinena nintzenez, besteek hamar egin behar zituzten, eta horrek presioa jarri die, eta ez dute asmatu presio hori kudeatzen».

Bigarren aldiz parte hartu du aurtengoan Etxeberriak; orain lau urte hiru jasoaldi egin zituen:

«Sei jasotzeko asmotan etorri nintzen, eta hiru jaso eta pott egin nuen. Gero bost minutu egin behar izan nuen harria jaso ezinik. Gaur [larunbata] berriro ere sei jasotzera etorri naiz. Ikusi dut aurreneko jasoaldian puntua hartu diodala, eta laguntzaileei esan diet zazpi edo zortzi egingo nituela. Gero, ondo ari nintzen eta pixka bat estutu dugu eta bederatzi jasotzea lortu dugu; beraz, oso gustura».

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

10. jardunaldia

Lauburu Ibarra - Anaitasuna	5-1
Otxartabe - Laskorain	3-3

Sailkapena

1. Tauste	28p
2. Otxartabe	21p
12. Lauburu Ibarra	13p
15. Laskorain	5p

Hurrengo jardunaldia

S. Cristobal (8) - Lauburu Ibarra (12)
Laskorain (15) - San Juan (3)

HIRUGARREN MAILA

10. jardunaldia

Tolosala - Antiguoko	4-8
----------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Leioako Ibaraki (15) - Tolosala (3)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

11. jardunaldia

Amenabar Zarautz	30
Tolosa CF Eskubaloia	27

Sailkapena

1. Amenabar Zarautz	22p
2. Romo Broker Kirol	19p
3. Casademont Zaragoza	16p
11. Tolosa CF Eskubaloia	8p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia (11)
Utebo (13)

1. LURRALDEKO MAILA

7. jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia	29
Urbil-Usurbil	37

Sailkapena

1. Zuhegan Orio Eragin	14p
2. Irauli Bosteko	12p
4. Tolosa CF Eskubaloia	6p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia (4)
Irauli Bosteko (2)

Futbola

3. RFEF MAILA

11. jardunaldia

Tolosa CF	1
Parquesol	0

Sailkapena

1. Eibar B	30p
2. Burgos	26p
3. Oñartzun	23p
9. Tolosa CF	15p

Hurrengo jardunaldia

Arratia (8) - Tolosa CF (9)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA GIZONEZKOAK

13. jardunaldia

Tolosa CF	2
Beti Gazte	1

Sailkapena

1. Aretxabaleta	30p
2. Zarautz	28p
3. Bergara	27p
7. Tolosa CF	23p

Hurrengo jardunaldia

Real Union B (8) - Tolosa CF (7)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA EMAKUMEZKOAK

10. jardunaldia

Ond. Amaikak Mu. - Tolosa CF B	2-2
--------------------------------	-----

GORENGO MAILA GIZONAK

11. jardunaldia

Billabona - Bergara	2-1
Aloña Mendi - Danena	1-1

GORENGO MAILA EMAKUMEAK

10. jardunaldia

Aiztondo Neskide K. Kluba	2
Lagun Onak	0

LEHEN MAILA ERREGIONALA

10. jardunaldia

Tolosa CF B - Texas	2-2
Euskalduna Andoain. - Intxurre	0-4

Saskibaloia

EBA LIGA

9. jardunaldia

Redline Mekanika TAKE	78
Cantbasket04	85

Sailkapena

1. Fundacion Bilbao Basket	8-1
2. LBC Cocinas.com	8-1
11. Redline Mekanika TAKE	2-7

Hurrengo jardunaldia

Getxo SBT (7)
Redline Mekanika TAKE (11)

EMAKUMEZKOEN 1. MAILA

7. jardunaldia

Goierrri	38
Eguzkitza Sagardotegia TAKE	50

Sailkapena

1. CD Internacional	7-0
2. Eguzkitza Sagard. TAKE	7-0
3. Goierrri	5-2

Hurrengo jardunaldia

Eguzkitza Sagardotegia TAKE (2)
AZ Casa de la Rioja (12)

GIZONEZKOEN 2. MAILA

8. jardunaldia

As. Mundarro - Elorri - Aldapa	50-89
--------------------------------	-------

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Zerbitzaria. Tolosako Igarondo tabernarako esperientzia duen zerbitzaria behar da, goizeko ordutegian, astelehenetik larunbateralan egiteko. Arratsaldeak eta igandeak jai. Interesa duenak deitu 619 364 196 zenbakira (Ainhoa).

Lehen puntua Jaka, Tolosa eta Peñarentzat

Binakako Pilota Txapelketa asteburuan
hasi da, eta lehen jardunaldiaren
hiru partida jokatu dituzte



Erik Jaka, binakako txapelketaren lehen jardunaldian. BAIKO PILOTA

Erredakzioa

Hasi da Binakako Pilota Txapelketa asteburuan. Lehen jardunaldiko hiru partida jokatu dira, eskualdeko lau pilotarirekin, eta horietatik hiruk lehen puntua lortu dute. Jon Ander Peña tolosarrak eta Iñaki Artola alegiarrak elkarren aurka jokatu dute lehen jardunaldian eta 19-22 irabazi zuten Peña II-Albisuk Artola-Imazen aurka. Segurako Baratze pilotalekuan izan zen partida.

Erik Jaka lizartzarrak, berriaz, Mariezkurrena II.aren osatzen du bikotea, eta 22-7 irabazi zion Larrazabal-Aranguren bikoari Aizarnazabalgo Atari-Soro pilotalekuan. Lehen postuan jarri dira sailkapenean, aldeko eta kontrako tanto kopuruen aldearengatik.

Bestalde, Xabier Tolosa anoeztarrak Ezkurdia aurrelari duela ari da parte hartzen txapelketan,

eta lehen partidari Peio Etxeberriari eta Zabaletari 22-11 irabazi zioten, Azkoitiko Gurea pilotalekuan.

Falta den lehen jardunaldiko partida ostegunean jokatuko da, Eibarko Astelena pilotalekuan. Altuna III.a amezketarraren ordeez Elezkano II.a ariko da, eta Martijarekin batera Elordi eta Rezustaren aurka jokatuko dute.

SERIE B TXAPELKETA

Bigarren mailako binakako txapelketan eskualdeko bi pilotari ari dira parte hartzen. Markel Iztueta tolosar atzelaria Agirrerekin batera ari da lehiatzen, eta lehen jardunaldian 22-19 irabazi zioten Alberdi II-Morgaetxebarrira bikoteari. Gorka Ugartemendia alkizar atzelaria Zubizarreta III.aren ari da lehian eta 22-11 irabazi zioten Senar-Eskiroz bikoteari.

Canabal eta Lizeaga, Ogi-Berri Txapelketako finalerdietara

Erredakzioa

Ogi-Berri Txapelketa Migel Sorroa Oroimenezkoan, final-laurdenetako partida jokatu zen asteburuan, elite mailan. Partida oso gogorra espero zen eta horrela izan zen 13-12 arte. Azkenean irabazle Canabal eta Lizeaga izan ziren, 22-13, J. Alberdi eta Uriondo bikoaren aurka.

Jaialdiko lehen partida lagunartekoa izan zen eta garaipena Iraeta-Leonet bikotearentzat izan zen, 22-10, Murua eta Goiburu bikoaren aurka.

Regillaga eta Etxarri, Gipuzkoarren Kirola 2023rako izendatuak

Erredakzioa Tolosa

Judo Club Tolosako Joseba Regillaga eta Joseba Etxarri judokak Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Gipuzkoarren Kirola 2023 sarietarako izendatuak izan dira. Bikoaren lorpenen artean daude 23 urtez azpiko Nage No Katan Espainiako eta Europako txapelketan lortutako urrezko domina eta Munduko Txapelketan lortutako seigarren postua. Sari hau bozketa ireki bidezkoa da, hori dela eta *Gipuzkoa.eus* webgunean sariaren atalean sartu eta beraien alde bozkatzeko deia egin du klubak.

Agirrezabala, Europako Txapelketako sailkatze fasean

Berastegierra Espainiako selekzioarekin ari da, 17 urtez azpiko mailan; abenduaren 8an egingo dute bigarren faseko zozketa

Erredakzioa Berastegi

Aiara Agirrezabala Azkue berastegiarrak 2024ko Europako Fubol Txapelketako lehen fasea jokatu du Espainiako selekzioarekin. 17 urtez azpiko mailan jokatu du eta kontuan izan behar da aurten 15 urte bete dituela Agirrezabalak. Portugalen jokatu zen lehen fasea, Braga barrutian, urriaren bukeran. Espainiako selekzioa A1 taldean zegoen Bosnia eta Herzegovina, Txekia eta Portugalekin batera.

Lehen partidari 8-1 gailendu zen Espainiako selekzioa, eta bertan Realeko jokalariek berastegiarrak bigarren zatiko 45 minutuak jokatu zituen. Bigarren partidari, berriaz, 4-1 gailendu zen Txekiaren aurka eta Agirrezabalak bigarren zatiko 26 minutu jokatu zituen. Portugalen aurka 0-4 gailendu zen Espainiako selekzioa eta jokalariek berastegiarrak partida osoa jokatu zuten.

Emaitza horiek lortuta, A1 taldean lehenengo postuan geratu ziren, eta horregatik abenduaren 8an izango den zozketan lehenengo ontzian egongo dira. Horrela, bigarren fasean beste 6 multzoetako bigarren edo hirugarren selekzioen aurka jokatu



Aiara Agirrezabala Azkue, Realeko kamisetarekin. REAL SOCIEDAD

dezakete, eta B ligan dauden beste zazpi taldeetako lehenengo baten aurka.

Europako Txapelketarako bigarren fasea martxo aldera jokatuko litzateke eta hor lehenengo geratzen diren zazpi selekzioak eta Suedia, azken hori anfitrioi gisa ariko dena, maiatzaren 5etik 18ra jokatuko den azken fasera sailkatuko dira.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Kepa Murua Azkue

Negar egingo degu joan
zarela,
eta poztu elkarrekin pasatako
momentuengatik

HIRE KUADRILLA



ASTEARTEA, 2023KO AZAROAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 28

AGENDA

Deialdiak

Berrobi. Inazio Mujika Iraolaren *Azukrea Belazeetan* liburua aztertuko dute irakurle taldean. Liburutegian, 19:00etan.
Ibarra. Ikastolako kanpo espazioa diseinatzeko bigarren batzarra, kultur etxean, 18:00etan.
Tolosa. *Han goian urkiak* hostoberritzen direnean aztertuko dute Galtzaundiren tertulia literarioan. Kultur etxean, 19:00etan.

Antzerkia

Tolosa. 41. Titirijai jaialdia: *A barca do inferno* (helduak, maskara txotxongiloak, gaztelaniaz), Topic-en, 20:00etan.

Musika

Lizartza. Nokono bakarlariaren kontzertua, udal aretoan, 18:30ean. *Soroko lore eder lirainena* diskoaren abestiak aurkeztuko ditu.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
10:00. Patxadaz. Milagros Eizmendi.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
18:00. Amalurra. Ingurumena.
20:00. Gazte gara gazte. Oier Gas-tesirekin

28 KANALA

10:30. Lotsagabe.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
17:00. Eugeniren txokoa.
18:30. Alarma Morearen kontzertua
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Kontu kontari.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro kaxkarra izango dugu. Egun osoan zehar zerua hodeitsu egongo da eta euri giroa izango da nagusi. Goizean zaparradak mardulak eta ugariak izango dira. Arratsaldean aldiz, tartekatuago eta ahulago egingo du, gauean ateri geratuko delarik. Ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da eta tenperaturak behera egingo du, 9-12 graduan joz goia.



Bihar. Giro lasaia izango dugu. Egun osoan zehar erdi eta goi-mailako hodeiak nagusi izango dira, nahiz eta, arratsalde partean ostarte gehiago ikusiko diren. Hodei hauek orokorrean ez dute euririk utziko. Hego-ekialdeko haizea nagusituko da eta tenperaturak nabarmen gora egingo du, 16-18 graduan joko duelarik goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lurpea garbi izatea bultzatuko dute

Kobazuloek duten egoera azaleratu, eta horiek garbitu eta lehengoratzeko helburuarekin Lurpea Garbi elkarteak sortu dute

Erredakzioa

Tolosaldeko kobazuloek duten kutsaduraren berri eman, eta horiek garbitu eta lehengoratzeko helburuarekin sortu dute Lurpea Garbi elkarteak. Hain zuzen, herritarrek inguruko kobazuloen egoeraz jabetzeko, elkarteak ki-deek kobazuloetan topatu dituzten mota guztietako hondakinak erakutsi zituzten herenegun, Tolosako Trianguloa plazan.

Uxue Lasa Lurpea Garbi elkarteak kideak azaldu duenez, Tolosa inguruko mendietan eta kobazuloetan hondakinak pilatuta dauden zuloak daude: «behin bertan sartzen zarenean ikusten duzu hondakinak duen eragina, bai kobazuloetako ekosisteman, eta baita hondakin horietatik pasatzen den ur guztian, gero ur hori gure iturrietatik ateratzen baita». Horrez gain, kobazuloetan egon daitekeen ondare kulturean eragina duela azpimarratu du Lasak. Egoera horri aurre egiteko beharrezkoa ikusi dute elkarteak sortzea, egoera azaleratu eta udalekin lan egiteko.

Eneko Agirre biologo eta elkarteak kideak egoera larria dela nabarmendu du, eta gizarte osoaren ardura dela esan du. Elkar-tearen helburu nagusia zaborte-gi gisa erabili diren edo kutsa-



Kobazuloetan topatutako hondakinak erakutsi zituzten larunbatean. I.G.L.

tuak dauden ingurune karstiko-en garbiketa-lehengoratzeko del dio Agirrek, eta hori Aranzadi Zientzia Elkartearen atarikiplean eta entitate publikoen babesarekin egin nahi dute. Bestalde, Tolosaldeko karstak aurkezten duten kutsadura egoera plazaratuko dute argazki erakusketa ibiltari baten bidez, eta horrez gain, sentikortasuna piztu nahi dute, boluntarioak erakarri eta kutsatutako guneen informazio bilketa gauzatu, bizilagun, basozain, mendizale edo gizabanakoei esker. Bestalde, arazoa dimentsionatu nahi dute, kutsatutako Tolosaldeko koba eta simen katalogoa osatuz. Azkenik, Tolosaldean garbiketa ekimen integral bat bideratu eta protokoloak ezarri nahi dituzte, eta gune horien

zonifikazioa eta babesak. Helmu-gei dagokionez, Agirrek dei egin dio kobazuloetako kutsaduren berri duen herritar orori elkarte-arekin harremanetan jartzeko.

Bestalde, Aitor Agirresarobe Tolosako Ingurumen zinegotziak gogora ekarri du Hondakinen Prebentziorako Astea dela, eta elkarteak udalaren babesak izango duela esan du: «Proiektua ikusi dugu eta duten asmoa oso beharrezkoa dela uste dugu».

Juantxo Agirre-Mauleon Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkari nagusiak aipatu du Aranzadiren ikerketaren lan eremuak direla kobazuloak: «Guretzat kobazuloak lehengaiak dira». Elkarte berriak Aranzadiren laguntza osoa jasoko duela azaldu du.

TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC tornuan lan egiteko.

Interesatuak bere CV ondorengo helbideetako batera bidali beharko dute **2023/12/01 baino lehen:**

Talleres Mitxelena, Koop.
Eziago poligonoa 21 · 20120 Hernani

info@talleresmitxelena.eus

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba
Elkartearen ohiko batzar nagusirako deialdia

EGUNA: 2023ko abenduaren 14a.
ORDUA: 17:00etan, lehenengo deialdian.
17:30ean, bigarren deialdian.
18:00etan, hirugarren deialdian.
TOKIA: Uzturpe Ikastolan.